

## Non daude?



1937ko martxoaren 31ko bonbardaketen ondoren, orduan hildakoak kanposantura eraman zituzten. 84 pertsona hobi komun bitan lurperatu zituzten. 85 urte geroago, hobi horiek aurkitzeko bidea zabaldu dute. Aranzadi zientzia elkarteko kideek joan zen astean egindako prospekzioan, ez zuten hobi komun arrastorik aurkitu. • 2-3



## 160 urte dituen elizako erlojua berriro taupadaka

**Otxandio** | Otxandioko elizako erlojua berriro martxan da auzolanari eskerrak. Hiru urtetik gora iraun duen prozesuan, dena desmuntatu, pieza guztiak garbitu, hondatuta zeudenak aldatu eta berriro muntatu dute. Erlojua bolalekuan dago ikusgai. • 8

## Saskibaloia pauso sendoak ematen dabil Abadiñon

**Kirola** | Saskibaloia sekula ere ez da tradizio handiko kirola izan Abadiñon, baina egoera horri buelta ematen ari zaio Abadiñoako Saskibaloia Taldea. 2018an gizonen taldea sortu zuten eta aurten emakumeena jaio da. Datorren denboraldian Bizkaiko ligan jokatu gura dute, lehenengoz. • 20

## Bentzenoak legeak markaturiko muga gainditu duela dio Durangoko Udalak

**Airearen kalitatea** | Durangoko Udalak jakinarazi duenez, udalerriko eguratsean kontzentratutako bentzeno kopuruak legeak baimenduriko muga pasatu zuen iaz. Eusko Jaurlaritzak Konposatu Organiko Lurrunkorren azterketa egin zuen udalerrian, 2020ko azaroaren eta 2022ko urtarrilaren artean, eta azterketa horren datuak helarazi dizkio Durangoko Udalari. Iaz metro kubikoko 5,75 mikrogramo bentzeno neurtu ziren Durangon, batez beste. Arauak 5 mikrogramotan ezartzen du gehieneko muga. Gobernu taldeak datua "ezkutatzen" aritzea leporatu dio Jaurlaritzari. • 5





## Durangoko hilerrian egindako prospekzioetan ez dute aurkitu bonbardaketako hobi komunik

84 pertsona lurperatuta egon zitezkeen hobi komunen bila aritu ziren joan zen astean

**DURANGO • JONE GUENETXEA**

Joan zen astean, Durangoko Udalak eta Gogora institutuak publiko egin zuten berria: Durangoko hilerrian egindako prospekzioetan ez dute aurkitu bonbardaketako hobi komunen arrastorik. Hilobiratze horiek egon zitezkeela uste zuten lekuak aztertu dituzte, baina ez dute bilatzen zebiltzana aurkitu. Udal ardura-dunek prentsa oharrean azaldu dute lan hauek "guztiz beharrezkoak izan direla 1937ko bonbardaketan hilerrian hobi komunak zeudela egiaztatzeko edo baztertzeko. "Euren senide erailak non dauden jakitea merezi dute familiek, eta erakundeetatik haien nahia zaindu behar dugu. Bilaketa hauek 85 urte berandu heldu dira, baina zenbait aukera baztertzeko balio izan dute. Gure aldetik, ikerketa-ildo berriak bilatzen, eta durangarrak ohartzeko eta egia, justizia eta biktima guztientzako erreparazioan oinarrituta gogoratzen jarraituko

dugu", nabarmendu dute. Durangoko Udalak senideei "maitasun eta babes osoa" helarazi die. Era berean, emandako laguntza eskertu die Aranzadi Elkarteari eta Gogora Institutuari.

**Aranzadiren txostenari itxaron behar zaio. Ondoren, udalak eta eragileek erabakiko dute ikerketa lanagaz jarraituko duten**

JIMI JIMÉNEZ

### Gune biren azterketa

Aranzadi joan zen asteko martitzenean, eguaztenean eta barrikuan aritu zen hilerriko prospekzioak egiten. Gune zehatz bi ikertu zituzten, leku horietan hobi komunak egon zitezkeen zantzuak zeudelako. Batez ere, leku-kotzetatik jasoriko informazioa kontuan hartu zuten. "Lekuko-

tzek bat egiten zuten gune zehatz batean. "Orain dela denbora asko, enterratzaileak Jon Irazabali esan zion hobi horiek hantxe zeudela eta leku horretan Otxandiano Batailoia plaka bat ipini zuela arbola bateko enborrean bere hildakoak omentzeko. Gainera, aita non hobiratu zuten esan zion amak Arturo Gomezen alabari, eta leku bera zen", azaldu du Durango 1936 kultur elkarteko Jimi Jimenezek. Hiru kointzidentzia horien eraginez, martitzenean San Bizente inguruan hasi ziren prospekzioa egiten. Baina leku horretan ez zuten arrastorik aurkitu. Ondoren, beste zonalde bat aztertu zuten. "Bigarren esparru hori susmagarria zen jende askorentzat, urte askoan ez zelako enterramendurik egin bertan. Izan zitezkeen espazio horretan hobi komunak mantendu izana. Konprobatu zutenean, emaitza negatiboa izan zen. Ez zen eze-lango indiziorik aurkitu. Ikusi zen enterramendu bi zeudela,

gainazalean seinalizatu barik", gaineratu du Jimenezek.

Durangon gertaturikoa "uste baino ohikoagoa" dela diote adituek. "Hilerri buruz berba egiten dugunean, jendeak leku lasai baten irudia izaten du, baina hilerriek euren garapen propioa daukate. Urteen joan-etorriagaz jendea lurperatzen jarraitu behar dute. Hirietan legez, alokairu bat edo hipoteka bat ordaintzen ez baduzu, kanpora zoaz", dio Durango 1936 elkarteko kideak. "Hilerri batzuek leku aldaketa horiek oso ondo jasotzen dituztela dio Jimenezek, Bilbokoak esate baterako. Durangokoan dokumentazio hori ez dela jaso azaldu du.

### Hemendik aurrera?

"Itxaron egin behar da Aranzadiren txosten teknikoak informazio guztia eman arte. Ondoren, udalak eta gai honegatik lotura duten eragileek erabakiko dute ikerketa lanagaz jarraituko duten. Indizioen arabera, bila genbiltzan enterramenduak ez dira agertu. Lehenengo inpresioa da beste leku askotan gertaturikoa gertatu dela hemen ere. Hau da, espazioa berriro erabili dela", gaineratu du Jimenezek. Idatziko dokumentazioa falta denean, jendearen lekukotzek inoiz baino garrantzi handiagoa daukate. Kasu honetan ere lekukotzak oinarritukoak izan dira. "Zenbat eta

denbora gehiago pasatu, jende gutxiago geratzen da, eta gatxago da. Gainera, hobi komunak ote zen edo modu individualizatuan leku komun batean egindako enterramendua ote zen jakin barik geratu gara. Zalantza hori gertatzen zaigu. Nik uste dut bigarren aukera hori izan zitezkeela. Horri eskerrak, 10 urte geroago familia batzuek handik atera zituzten euren senitartekoak", gogoratu du durangarrak.

### Aurrekariak

Gogora Institutuak urtarrilean baimendu zituen Durangoko hilerriko prospekzio lanak. Martxoaren 31ko bonbardaketan 336 hildako zenbatu zituzten. Leku-koen esanetan, eurentariko asko kanposantura eramane zituzten egun hartan eta hurrengo egunetan, eta uste denaren arabera eurentariko batzuk hobi komun bitan lurperatu zituzten. 84 pertsona, hain zuzen ere. Gerediaga elkarteak eta Durango 1936 kultur elkarteak, udalaren babesagaz, identifikazio eta dokumentazio lana egin dute 84 pertsona horien zerrendatik abiatuta. Jimi Jiménez izan da dokumentazio lan sakon hori egin duena. Aurkituriko datuekin 25 familia baino gehiagok hartu-emanen jartzea lortu dute. Ibilbide osoan zehar familia horiek informatuta egon dira.



LOURDES  
HERRASTI

Antropologoa. Aranzadi Zientzia Elkarte.

## "Bilatu dugun lekuetan ez dugu hobi komunik aurkitu"

Joan zen astean, Aranzadi zientzien elkarteak lantalde batek prospekzioak egin zituen Durangoko hilerrian, bonbardaketa garaiko hobi komunak bilatzeko. Lourdes Herrasti (Aretxabaleta, Gipuzkoa, 1958) historialaria eta antropolo-

goa azterketa horren arduraduna izan zen.

Zein informazio izan duzue eskuen artean?

Durangon bertan landuriko informazioa genuen, bai Gerediaga

elkarreak bai Durango 1936 elkarreak jasorikoa. Aspalditik lantzen genbiltzan gaia izan da.

**Horren arabera, zelan planteatu duzue prospekzioa?**

Kanposantuan hutsik zegoen eremu bat zegoen, umeak hilobiratuta dauden esparruan, hain zuzen ere. Jendeak uste zuen bazitekeela espazio horretan bonbardaketako hobi komun bi egotea. Jon Irazabalek egindako lanean agertzen den

**Kanposantuak leku mugatuak dira eta behin eta berriro erabiltzen dira**

zerrendan, garbi asko aipatzen dira "Fosa uno" eta "Fosa dos" eta 84 pertsonako zerrenda bat. Hor hobi biri buruz berba egiten da. Batean eta bestean zenbat pertsona dauden azaltzen da. Hori bilatzera joan ginen. Jakin gura genuen ea urte hauetan guztietan hobiak egon diren, bertan mantendu diren.

**Zelan egiten da lan hori teknikoki?**

Zabaldtu egiten da eta miatu. Guk horri *prospektatu* esaten diogu. Lurrak kendu eta hobiak bilatu behar dira.

**Zelan egin zenuten prospekzioa joan zen astean?**

Martitzenean joan ginenean, San Bizente eremura joan ginen, aurreikusita genuen gunera barik. Sartu eta ezkerretara dagoen zonalde bat da, hilerriko atetik oso gertu. Gerediagakoen esanetan, lekuko batzuek esan zuten hantxe hobiratu zituztela bonbardaketan hildakoak. Emakume baten lekukotasuna jaso genuen. Berak zioenez, bere aitona hilobiraturiko lekua ikustera joaten zen amamagaz hilerriera. Amak esaten zion aitona hezurak atera egin zituztela leku horretatik. Kointzidentzia horiek ikusita, hara joan ginen lehenengo. Prospekzioa egiterakoan, hobi bi aurkitu genituen. Kanposantuko hilobi normalak ziren. Hala ere, atera egin genituen. XX. mendeko bigarren erdialdekoak ziren. Begiratu egin genuen ea horren azpian bonbardaketa garaiko hezurren arrastorik egon zitekeen. Hala ere, ez genuen ezer ere aurkitu. Beraz, leku horietan inoiz hobi komunik egon bada, jada ez dago.

**Eta beste gunean?**

Haurrak hilobiratuta dauden gunea zen aurreikusita genuena. Esparru horretan asko zabaldtu genuen, baina ez genuen ezer ere aurkitu.

**Ez dituzue hobi komunak aurkitu. Baina posible da inoiz hor egon izana?**

Aurretik egon ziren edo ez ezin dugu esan. Guk ez ditugu aurkitu.

Horixe da ebidentzia bakarra. Ziur gorpuak kanposantura eramantuztela eta hilerrian bertan hilobiratu zituztela, baina non? Hori ez dakigu. Geroztik atera dira? Agian bai, ez dakigu. Hipotesiak egon daitezke, baina guk ez dugu informaziorik hori garbi esateko.

**Aurretik egon ziren edo ez ezin dugu esan. Guk ez ditugu aurkitu. Hori da ebidentzia bakarra**

**Gai honetan esperientzia handia duzue. Hilerrietan, orokorrean, zailtasun handiak daude hainbeste denbora pasatuta hobiak aurkitzeko.**

Kanposantuak leku mugatuak dira, eta behin eta berriro erabiltzen dira. Kontuan hartu, berez, 10 urtetara hezurak atera egiten direla leku hori berriro erabili ahal izateko. Beraz, 80 urte pasatu ondoren pentsa dezakegu lau bider behintzat aldatu ahal izan direla, ez bada panteoietan mantendu direnak. Eraikitako lekuetan ez da ezer aldatzen, baina lurrean egindako enterramendu guztietan egin dira aldatketak. Baina hori kanposantuko bizimodu normala da, leku horri dagokiona.



# “Aramotz auzoa berritzeko proiektua orain egiten ez bada, ez da egingo”

Aramotz auzoko 16 atarietan 130 bat biztanle bizi dira. Auzotarrek itxaropenez begiratzen diote berritze proiektuari

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

**Aramotz auzoko bizilagunek urteak daramatate auzoa berritzeko eskatzen. Udalak idatzita dauka urbanizazio proiektua, eta auzotarrek irisgarritasunari eta efizientzia energetikoari loturiko laguntzak lortu dituzte etxebizitza blokeetarako. Auzoa berritzeko asmoa, beraz, egia bihurtuko da laster. Txema Bilbao (Durango, 1961) Herria Auzo Elkarteko kidea da. Berak erantzun die ANBOTOren galderari.**

laguntzak dira. Aurreko batean, Miguel De los Toyos egon zen hemen, Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburuordea. Ez zigun kopuru zehatzik eman, baina baietz esan zigun, jasoko ditugula Next Generation laguntza horiek. Bere berba dugu. Laguntza horiekin guztiekin, auzotarron etxebizitzak birgaitzeko aurrekontuaren erdia finantzatu

**Zein puntutan dago auzoa berritzeko proiektua?**

Momentu honetan, honela daude kontuak: batetik, etxebizitzak berritzeari loturiko proiektua dago. Atari guztietan igogailu bana ipintzea aurreikusita dago, eta fatxadak berritzea. Irisgarritasunari eta efizientzia energetikoari dagozkien diru laguntzak lortu ditugu, eta aurreratu digute Next Generation Funtseko diru laguntzak ere izango ditugula. Azken hauek Europatik eta Espainiako estatutik datozen

**Martitzenean udalagaz batu ginen; makina hondeatzaileak sanfaustoetarako martxan egongo direla esan ziguten**

ahalko genuke. Gero, beste kontu bat dago eta hori Durangoko Udalari dagokio. Udalak auzo inguruak urbanizatzeko proiektua du esku artean. Auzo barruko kanala berbiderratu eta errekan moldaketak egingo ditu, besteak beste. Aramotz



Rebeca Martin Aramotzeko udal bulegoko langilea eta Txema Bilbao Herria auzo elkarteko kidea.

berritzeko proiektua orain egiten ez bada, ez da egingo. Degradaturiko auzoa are eta degradatuagoa izango da.

**Hau da, proiektua orain egiten ez bada, tren horrek aurrera egingo duela, Aramotzen gelditu barik.**

Hori da. Orain finantziario sistema pentsatzen ari gara auzotarron artean. Hemengo auzokide askok ezin du 20.000 edo 25.000 euro kolpetik ordaindu, ezta diru laguntzak

izanda ere. 80 urte dituen bizilaguna zelan joango da bankura kreditua eskatzera? Diru laguntzak, komunitatearen dirua, hori guztia aztertu gura dugu apurka-apurka. Puntu horretan gaude.

**Noiz hasiko dira lanak?**

Martitzenean udalagaz batu ginen. Makina hondeatzaileak sanfaustoetarako martxan egongo direla esan ziguten. Urrirako hasi gura dituzte lanak.

**Zelakoa da Aramotzeko auzo bizitza gaur egun?**

Ona. Aramotz beti izan da bizi handiko auzoa. Jaietan, gauzak antolatzeke orduan, beti egon da mugimendua. Orain, gainera, jende berria etorri da auzora. Gazte jendea asko, etxebizitzak merkeak dira eta. Elkartean gaudenok geuk gura dugulako gabiltza lanean. Auzo bizitzari dagokionez, osasun ona dugu.

## Durangoko gobernu taldeak dioenez, gobernu planean markaturikoaren %82 "beteta edo martxan" dago

Urte bi dira EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak Durangoko gobernu taldea eratu zutenetik

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

2019ko otsailaren 11n, Durangoko gobernu taldeak bere gobernu plana aurkeztu zuen San Agustin Kulturgunean, eta, asteon, ordutik honako ibilbidearen balorazioa egin du. Ohar batean azaldu

dutenez, gobernu taldeak "beteta edo martxan" ditu harturiko konpromisoen %82. Orain arte landuriko proiektuen artean, honako hauek nabarmendu dituzte, besteak beste: Jaurlaritzagaz lorturiko akordiorako oinarria,

TADUko aparkalekua, Otamotzena parkea, Antso Estegiz kalea berritzeko diseinua, Merkatu plaza berritzeko proiektua, Taxilagun zerbitzua, Kalistenia, Oinherri eta bonbardaketako hobi komunaren prospekzioa egitea.



Orain urte bi aurkeztu zuten gobernu plana, San Agustin Kulturgunean.

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2022ko otsailaren 18a  
20. urtea - 882. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



2015

PEFC aurkitua  
Produktu hau  
komertziala  
hazterako materialak  
egoki dago berriketa  
da eta Bako Kudeaketa  
Sistemaren  
Zuzentzaia dauka  
www.pefc.es

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Jorge Varela zinegotzia, Aritz Bravo zinegotzia eta Aitor Larruzea udaleko ingurumen teknikaria.

## Udalak dioenez, Durangoko bentzeno maila legeak baimenduriko kopuruen gainetik egon zen iaz

2021ean, metro kubikoko 5,75 mikrogramo bentzeno neurtu ziren Durangoko eguratsean, batez beste. Arauak 5 mikrogramotan ezartzen du gehienezko muga

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak eman du datua: udalerriko airean kontzentratutako bentzeno mailak Europak markaturiko eta Espainiako estatuak aplikaturiko muga pasatu zuen iaz. Eusko Jaurlaritzak Konposatu Organiko Lurrunkorren azterketa egin zuen herrian, 2020ko azaroaren eta 2022ko urtarrilaren artean, eta azterketa horren datuak helarazi dizkio Durangoko Udalarari oraintsu. Udalak urtarrilaren 24an jaso zuen dokumentua. Aitor Larruzea ingurumen teknikariak eta gobernu taldeak datuak aztertu dituzte egunotan, eta bertan ondorioztatu dute bentzeno mailak legeak baimenduriko mugak igaro dituela. Gobernu taldeak datu hori "ezkutatzea" leporatu dio Jaurlaritzari, "orain arte arazorik ez dagoela esaten ibili denean".

Ingurumen Sailak egindako eta Durangoko Udalak eskura-

turiko dokumentu horrek datu gehiago ere utzi du. Adibidez, test kopuruak. Konposatu Organiko Lurrunkorrek neurtzeko testak 2021eko 364 egunetan egin zituzten. 15 test eguneko. Eta azterketak ondorioztatu duenez, urteko egunen %16an igaro

**Aritz Bravo: "Datu hauek ezkututzen edo estaltzen aritzea oso salagarria dela deritzogu"**

zen bentzeno-muga. Horrez gain, 133 mikrogramoko isurketa-pikoak ere neurtu zituzten. Ikerketak utzitako beste datu bat da bentzeno emisioen %61 gauez isuri direla. Aitor Larruzea ingurumen teknikariaren berbetan, "prozesu industrialetan" egon daiteke emisio horien jatorria.

Durangoko Udalak dioenez, Jaurlaritzak helarazitako doku-

mentuak ez dio isurkinen sorburuari loturiko informaziorik eskaintzen, baina gobernu taldeko kideek berretsi egin dute emisioen jatorria "Iurreta aldean" dagoela. Tecnalia ikerketa etxeak duela urte bi udalarentzat egindako ikerketa aipatu dute.

Aritz Bravo zinegotziak "oso larritzat" jo ditu datuak. "Airearen kalitatea txarra da bentzeno mailari dagokionez. Datu hauek ezkutatu edo estali izana oso salagarria da", esan du. Jorge Varela ere ildo beretik berba egin du. Bere esanetan, egoera "kezkatzeko modukoa" da. "Jaurlaritzak esan digu ez dagoela arazorik. Alarmistak garela esan eta entzungor egin digute. Gaia serio hartzea eskatzen diogu Jaurlaritzari", esan du. Udalak Ingurumen Saila deitu du gaiari konponbidea eman diezaion eta isurien jatorria ikertu dezan. Bilera egin gura dute Ingurumen Sailagaz.

## Durangoko EAJk bizikletentzako gune estalia "lehenbailehen" ipintzea eskatu du

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko jeltzaleek diotenez, bizikletentzako aterpea jartzeko proiektua 2021eko aurrekontuetan hitzartu zuten gobernu taldeagaz 40.000 euroko diru poltsa bideratuta. Mireia Elkoroiribe EAJren bozeramaileak dioenez, aparkaleku estalia "funtsezko zerbitzua da mugikortasun eredu berri bat bultzatzeko, desplaza-

mentu aktibo eta jasangarriak lehenetsita motorizatuen aurretik". EAJk dio zerbitzua "inoiz baino beharrezkoagoa" dela, are gehiago udaletxearen bueltako aparkalekuak kendu eta gero. Azken hauetaz buruz, gobernu taldeak adierazi izan du aparkalekuak behin-behinean kendu zituela, udaltzaingoaren bulegoa berritze-ko lanek irauten zuten bitartean.



Bizikletentzako aparkalekua behin-behinean kendu zuten udaletxe ondotik.

## Diru laguntzak prest eskualdeko kiroldegietara doazen garaitarrentzat

Garaiko Udalak diruz lagunduko ditu iaz egindako kirol jarduerak. Eskariak hilaren 28ra arte egin daitezke

### GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Udalak diru poltsa bat prestatu du kirola egitera Durangaldeko zentroetara joaten diren herritarrentzat. Diru laguntza-zenbatekoa gastuaren %30 izango dela jakinarazi du udalak, baina gaineratu du kopuruak ezin izango duela 100 euroko zenbatekoa gainditu eskatzaile bakoitzeko. Diru poltsagaz, iaz egindako jarduerak lagunduko

ditu. Horretarako, ezinbestekoa izango da Garain erroldatuta egotea eskaria egin baino urtebete lehenagotik, eta kirol ikastaroa amaitu arte erroldatuta jarraitzea.

Eskariak Garaiko udaletxean aurkeztu beharko dira, otsailaren 28a baino lehenago. Besteak beste, dokumentazioa eta kirol zerbitzuaren faktura aurkeztu beharko dira bertan.

**Seguros Bilbao**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
**Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577  
jrueda@segurosbilbao.com

**DIBA**  
K O O P E R A T I B A

**Durangaldeko Baserritarren Elkarte**

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

## Eskolako hesia mugitu eta patioa handitzeko eskatu dute Atxondon

Eskaria Atxondoko Ikasleen Guraso Elkarteak egin dio udalari. Ez dute erantzunik jaso



Hesia mugituta patioa handiagoa izango litzateke.

### ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Asteon, Atxondoko Guraso Elkarteak ohar baten bitartez gogorazi du orain urtebete inguru eskolako patioa mugitu eta beratu handitzeko eskatu ziola udalari. Adierazi dutenez, eskola kanpoko hesi ondoko berdegunea publikoa da, Atxondoko Udalarena, eta eskolako ekintzetarako "baino ezin da erabili, horrela dago jasota Atxondoko hirigintza planean".

"Orain dagoen hesia mugitu eta eskola ondoan dagoen lursaila, belarra dagoena, eskola eremuan sartzea da gure eskaria", azaldu du Atxondoko Ikasleen

Guraso Elkarteak prentsa oharren bitartez. "Gaur egungo eskolako patioa hormigoia da oso-osoan eta lursail hori eskola ondoan egotera erabili egin ahal izango litzatekeela uste dugu", gaineratu dute Guraso Elkarteak.

**"Patioa hormigoia da oso-osoan eta lursail hori eskola ondoan egotera erabili egin ahal izango litzateke"**

### Udalaren erantzunik ez

Bestalde, Guraso Elkarteak ki-deek azaldu dute "harrituta" daudela udalagaz. "Herriko Eskola lehentasun bat dela azaldu dute behin eta berriro albisteetan, eta lanean dabilzala eskola bultzatu eta hobetzeko. Baina eskaera hau orain urtebete inguru egin genuen eta oraindik ez dugu erantzun ofizialik jaso", azpimarratu dute.

Hori horrela, udalak hesia mugitu gura ez badu, horretarako baimena gurasoei eurei emateko eskatu dute. "Prest gaude lan hau guk geuk egiteko", esan dute Guraso Elkarteak.

## Berrizburuko futbol zelaian hainbat hobekuntza egingo dituzte

Berrizko Udalak 73.200 euro ipiniko ditu kanpoko eta barneko itxitura konpontzeko. Beste 6.200 euro futbol zelaiko makineria konpontzeko erabiliko dituzte

### BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken osoko bilkuran, hainbat diru partidatan egindako diru txertaketan berri eman zuen Orlan Isoird alkateak, eta 2022an Berrizburuko futbol zelaian hainbat hobekuntza lan egingo dituztela ere jakinarazi zuen bertan. Alde batetik, 73.200 euro ipiniko dituzte Berrizburuko futbol zelaiko kanpoko eta barneko itxitura konpontzeko. Barneko itxitura berdegunea eta partidua zutunetik ikusteko gunea banatzen dituen hesia da.

Bestalde, udalak 6.200 euro ipiniko ditu futbol zelaiko makineria eta aspertsoreak hobetzeko.



## Emakumeentzako alfabetatze eta ahalduntze ikastaroa hasiko da otsailaren 21ean Elorri

Otsailtik ekainera eta irailtik abendura egingo dute ikastaroa, martitzen eta eguenetan, 9:30etik 12:00etara



Iazko ikastaroko argazkia.

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorriko Udalak, Zabaltzen Sartu kooperatibagaz elkarlanean, emakumei —batez ere migratzaileei eta gizarte bazterketa arriskuan daudenei—, zuzenduriko alfabetatze eta ahalduntze programari ekingo dio berriro.

Ikastaroa otsailaren 21ean hasiko da eta martitzen eta eguenetan emango dute, Ametsolan; 9:30etik 12:00etara. Ikastaroaren helburua irakurketa-idazketagaz, ahozko eta idatzizko ulermengaz, eta oinarrizko eragiketa matematikoekin eta abarrekin erlazionaturiko ekintzak bultzatzea

da. Baita emakumeen aktibazioagaz eta ahalduntzeagaz zerikusia duten gaiak jorratzea ere, emakume horiei autonomia handiagoa emateko eguneroko bizitzarako.

### Iaz 13 pertsona ikastaroan

Iazko ikastaroan, 30etik 58 urtera bitarteko 13 emakumek parte hartu zuten. Marokoko, Pakistango, Errumaniako, Brasilgo eta Senegalgo emakumeak ziren. Hauetxek izan ziren ikastaroan ondoen baloratu zituzten tailerak: gorputzaren zaintza, elikadura eta osasuna, eta gorputz eta emozio adierazpena.

## Elorriko Udalak Ateneoko rock lokalak txukundu ditu

Elorriko Udalak jakinarazi duenez, 60 pertsonak baino gehiagok erabiltzen dituzte lokal hauek

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR


Arriola Antzokiko Ateneoan dauden eta herriko rock taldeek erabiltzen dituzten lokal biak konpondu eta txukundu ditu Elorriko Udalak. Guztira, 15.000 euro erabili ditu eraberritzeak egiteko. Besteak beste, sabaletako panel guztiak berritu dituzte, argi ez zuzenaren instalazioa hobetu dute eta aireztapen-sis-

tema osoa berritu dute. "Egindako hobekuntzek lokal horiek partekatzen dituzten taldeek helarazi dizkiguten eskaerei eta beharriari erantzuten diete, eta, gazteen topagune bat dela kontuan hartuta, ezinbestekoa zen haiei erantzun bat ematea eta haien beharriaz zuzenean hitartu den espazioa izatea", azaldu du Julene Lazkano zinegotziak.





# Ostalaritza gida



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**

 **Durango**



**OIERDI**  
Herriko gudarien 8, DURANGO  
**Tel.: 946 129 824**  
Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.

 **Durango**



**AI AMA**  
Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO  
**Tel.: 946 232 240**  
Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!

 **Abadiño**



**ABARKETERUENA**  
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO  
**Tel.: 944 657 790**  
Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

 **Zornotza**



**XIBERU**  
Zezilia Gallartzagoitia, 9  
**Tel.: 946181758**  
Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 **Durango**



**MIKELDI TABERNA**  
Kalebarria, 7 - DURANGO  
**Tel.: 944 073 988**  
Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.

 **Iurreta**



**GAUARGI**  
Dantzari Etxetaldea, IURRETA  
**Tel.: 944 356 674**  
Gosariak, pintxoak, molleteteak, rabak, errazioak eta askotariko tortilak enkarguz,...

 **Durango**



**IBAIZABAL**  
Ibaizabal taldea, 2A - DURANGO  
**Tel.: 946 550 185**  
Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.





Ezkerrean: erloju eraberritua bolalekuan / Erdian: Otxandioko elizako kanpandorra / Eskuman, goian: erlojua egin zuen Juan de Abaituaren sinadura erlojuko pieza batean / Eskuman, behean: orduak ematen dituen kanpaia.

## Hiru urteko auzolanari eskerrak, 160 urte dituen elizako erlojua eraberritu dute Otxandion

Erlojua martxan da eta gaur egun bolalekuan dago; etorkizunean berriro kanpandorrera eramatea da asmoa

**OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO**

Auzolanari eskerrak, Santa Marina elizako erlojua martxan da berriro ere Otxandion. Hiru urte pasatxo iraun duen prozesuan, erlojua kanpandorretik jaitsi, desmuntatu, pieza guztiak garbitu, limatu, pintatu, hondatuta zeudenak ordezkatu, eta zaharberitze baten barruko lan guztiak egin dituzte, berriro piezarik pieza muntatu aurretik. Azken emaitza, erloju eraberritua, bolalekuan dago gaur egun.

Prozesu luzea eta nekeza izan da sarritan, baina auzolanean aritu

direnak gustura daude emaitzagaz. "Erlojua herriak duen altxor bat da eta horrelako altxorrek mantentzea inportantea da. Oso pozik gaudem emaitzagaz", adierazi du auzolan taldeko Juan Mari Otxandiano kideak.

Bidean, erlojugile aditu bik laguntza eta aholkularitza eskaini dizkiete: Aitor Villa hernaniarrak eta Xabier Yeregui gasteiztarrak. Hain zuzen ere, Yereguik erlojuaren inguruan Otxandion eskaini zuen berbaldi batean animatu zen herritar talde bat erlojua eraberritu-

tzera, erlojuaren balio historikoaz jabetuta. Gero, elizako batzordeari baimena eskatu eta "ez ziguten batere arazorik ipini", gogoratu du Otxandianok.

Erlojua hiru metrotik gora garai da eta 400 bat kilo pisatzen du. Erlojutik eskegita dauden ingude bik dute pisurik handiena: 139 eta 90 kilokoak dira. Ingudeek sorturiko energia potentziala darabil erlojuak martxan jarraitzeko; horixe da erlojuaren energia iturria. Egunean behin, pisuak goratu egin behar dira, lurra jo aurretik. Ingudeak

astunak dira, baina ez erlojua kanpandorrean zegoenean zituen harriak bestekoak: haiek 370 eta 265 kilo zituzten. "Pisu horregaz egiturak asko sufritzen du. Horregaitik aldatu dugu. Erlojuak 160 urte ditu eta ea beste horrenbeste irauten duen", adierazi du Otxandianok. Il-do horretatik, pieza guztiei pintura antioxidatzailea eman diete.

Erlojua bolalekuan dago orain. Eliza kanpandorrearen barrualdea eta bertarako sarrerak berrizatu daitezkeen aztertzen dabil. Horrek, etorkizunean, erlojua berriro

kanpandorrera eramateko aukera emango luke.

### Erlojuaren historia

Udalak 1858an erosi zuen erlojua. 2017 inguruan udaletxean aurkituriko akta batean jasotzen da horren berri. Garai hartako hainbat herritar kexatu egin zen erlojua txarto zebilelako. Eurentzat oso garrantzitsua zen, erlojua euren ogibiderako eta zereginetarako erreferentzia lez erabiltzen zuten eta. Horren harira, batzar bat egin zuten udaletxean; sasoi hartako Valentin de Ugarte alkateak eta zinegotziek ez ezik, "auzotar eta ugazabarik dirudunenek" ere parte hartu zuten, batzarreko aktak jasotzen duenez. Erloju berri bat beharrezkoa zela erabaki zuten. Erloju berria Juan de Abaitua erlojugileari agindu zioten, 4.700 errealetan.

## Mañarian kalera irten dute herritarren iritziak batzeko

Joan zen asteko batzar irekian parte hartzea baxua izan zen

**MAÑARIA • J.D.**

Mañariko Udalak prozesu parte hartzailea hasi du herritarrekin, aurrekontuetako 14.000 euro zertan inbertitu erabakitzeko. Prozesu horretako osagai bat aurreko astean liburutegi zaharrean egin beharreko batzar irekia zen. Baina pertsona bat baino ez zen agertu eta, horren ondorioz, bilera bertan behera utzi zuten. Edoze-lan ere, asteon beste saiakera bat egin dute herritarren iritziak jasotzeko. Barrutik kalera atera dute

ekimena. Prozesua kudeatzeko ardua duen Maraka taldeko kideak kalean ibili ziren atzo, herritarren iritziak jasotzen.

Joan zen asteko batzarreko interes faltak zer pentsatua eman die udal arduradunei. "Ez dakigu pandemiaren eraginez aldaketaren bat izan den gizartean, edo ez dagoen beharrezko batzar presentzialik egiteko edo beste arrazoiren bat dagoen", adierazi du Ainara Otxotorena Mañariko alkateak.

## Paleta gomako palistarik onenak Mallabian lehiatuko dira txapelaren bila

**MALLABIA • J.D.**

Mallabiko pilotalekuak paleta gomako Euskal Herriko elite txapelketako finalerdiak eta finala hartuko ditu otsailaren 26ko eta martxoaren 5eko zapatuetan, hurrenez hurren. Kasu bietan, 17:00etan hasiko dira partiduak.

Txapelketa honetan, paleta gomako emakumerik onenak dabil-tza lehian. Orain arte, jardunaldi bi jokatu dituzte, Etxarri-Aranatzen eta Areatzen, eta asteburuan hirugarren eta azken jardunaldia jokatu dute, Tolosan.

Txapelketak joko sistema berezia du, Biharko Izarrak pilota txa-

pelketak duenaren antzerakoa: ez dago bikote finkorik. Hau da, jardunaldi batetik bestera aldatu egiten dira bikoteak. Horrela, lehenengo fasean puntuaziorik handiena lortu duten lau aurrelari eta atzelariek jokatu dituzte Mallabiko finalerdiak.

Oraingo, Irustabarrena, Galdos eta Murillo aurrelariak partidu bana irabazi dute; atzelarien artean, Arrieta dago ondoen kokatuta, jokaturiko partidu biak irabazita. Aurten ez dago Bizkaiko ordezkari txapelketan: Denak Gipuzkoak, Arabakoak edo Nafarroakoak dira.

## Izurtzako jubilatuen elkarteak bere lokalean egingo du batzar orokorra aurten

**IZURTZA • J.D.**

Izurtzako Erdoitzako Ama jubilatuen elkarteak batzar presentziala egingo du martxoan, San Jose egunaren bueltan, urteko kontu orokorrak onartzeko. Egunduek erabaki barik dute oraindino. Pandemia hasi zenetik hona egiten duten lehenengo bilera izango da. Normaltasunera bueltatzeko pauso berri bat da, iaz mantentze-gimnasia berreskuratu eta gero. Gaur egun, 39 kidek osatzen dute jubilatuen elkarteak.



# Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

## Batu Anbotoko whatsapp taldera



**Bidali alta**  
**688 635 041**  
**telefono zenbakira**

\* **Izan zaitez berriemaile ere.**  
**Bidali zure argazki eta bideoak**

**> anboto**

# Zornotzako Bizkargi kafetegi sozialak "penaz" zarratu behar izan ditu ateak

Udatik hona, tabernaren bideragarritasun ekonomikoa ez da behar bestekoa izan. Dena dela, Harrera Taldeak lanean jarraituko du, elkartasun balioetan oinarrituta



Bizkargi kafetegiaren barrualdea.

## ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Bizkargi kafetegi soziala itxi egin dute. Orain aste pare bat, urtarrilaren 28an, zerbitzatu zuten azken kafea. Proiektua bultzatu duten kideek diote asko kostatu zaiela erabakia hartzea, baina ez dute establezimendua zarratzea beste erremediorik izan. Izan ere, proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa ez da behar bestekoa izan azken boladan. "Kafetegiak oso ondo funtzionatu zuen hasierako boladan, baina 2021eko udatik hona beherakada igarri dugu", azaldu du Irati Aiestak, Zornotzako Harrera Taldeko kideak. Bera izan da, Harrera Taldeko beste hainbat kidegaz eta Zornotzako eragile sozialekin batera, kafetegi soziala bultzatu duen kideetariko bat.

"Erabakia hartzea gatxa izan da. Oso-oso gatxa. Baina, orain, txarto egin ahal izan ditugun gauzetatik ikastea dagokigu. Beharbada ez dugu kafetegian zerk huts egiten zuen asmatzen jakin, eta ez dugu egoerari buelta ematen jakin", gaineratu du Aiestak.

### Elkartasun balioak

Bizkargi kafetegiak 2020ko azaroan zabaldu zituen ateak. Zornotzako Harrera Taldeak bultzatu zuen proiektua, herrian harreran

**"Beharbada ez dugu kafetegian zerk huts egiten zuen asmatu eta horri buelta ematen jakin"**

zeuden migratzaileei laguntzeko eta taldearentzat lagungarria izango zen finantziario sistema bat sortzeko. Proiektua herriko eragileekin batera hasi zuten, diru bilketa bat eginda eta aspaldi taberna izandako establezimendua auzolanean berreskuratuta. Bidean, Zornotzako eta inguruko herrietako ekoizleen produktuak saldu dituzte, musika emanaldiak eskaini dituzte, kafetegia jatorri askotako herritarren topaleku izan da eta proiektuak beti defendatu du elkartasun balioetan eraikitako gizarte erredua.

Kafetegia da zarratu dena, baina ez Harrera Taldearen espiritua, Taldeak Zornotzan harreran bizi diren herritarrei laguntzen jarraitzen du eta.

# Zaldai mendi taldeak 1.510 euro eman dizkio Angelman Sindromea Elkarteari

Gaixotasun horren ikerketara bideratuko dute dirua

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Zaldai mendi taldeak 1.510 euro batu zituen Iurretako 'Basatza' IV. Mendi Bizikleta Martxako izen-emateekin, eta diru hori guztia Angelman Sindromea Elkarteari

eman dio asteburuan, gaixotasunaren ikerketarako erabili dezaten. Guztira, 182 lagunek parte hartu zuten urtarrilaren 29an egin zen bizikleta martxan. 2019n sortu zen elkartasun hartu-eman.



Elkarteko kideak Zaldai mendi taldeko ordezkariekin.

# Iurretak Hondurasen garatuko den proiektu bat babestuko du

Medicus Mundi Bizkaiak lortu du udalak 2021eko Garapenerako Lankidetzako proiektuetarako diru laguntza

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak 5.000 euroko diru laguntza emango dio Medicus Mundi Bizkaia elkarteari Hondurasko San Martin komunitatean (Omoa, Cortes) ur-baliabideak optimizatu eta gaixotasun hidrikoak prebenitzen laguntzeko proiektua garatzeko. Garapenerako lankidetzako proiektuetarako 2021eko deialdira aurkezturiko bost egitasmoen artean aukeratu duten proiektuak 7.239,13 euroko

inbertsioa eskatuko du. Hondurasko Mendebaldeko Garapenerako Elkarteak 895,36 euro ipiniko ditu, eta San Martin Patronatuak (Omoako Udala) 1.343,78 euro.

Ura biltegitratzeko sistema bat eraikiko dute. Lehenengo fase batean, onurak identifikatuko dituzte, eta gero kotizazio-, erosketa- eta eraikuntza prozesuak garatuko dituzte. Erakunde komunitarioaren babesaren duen prozesuan emakumeak inplikatu dituzte.

# Nagusi Aretoak osasuna, kultura eta teknologia lantzeko tailerrak batu ditu egitarau berrian

14 jarduera programatu dituzte, ekainera arte. Horien artean, ibilaldiak, txangoak, eta erlaxazioa, memoria, Euskal Herriko historia eta ingelesa lantzeko ikastaroak daude

## ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

"Askotariko jendea batzen gara hemen. Bakoitzak bere gustuak ditu. Ni, adibidez, denera ailegatu ezinda nabil. Berbaldiak, ibilaldiak,... Nagusi Aretoko ekintzak oso onuragarriak dira. Oso pozik nago jarduerekin". Amelia Bolaño zornotzarrak berba horiekin deskribatu du Nagusi Aretoko eskaintzen duen aktibitate sorta. Euskara eta gimnasia saioetan sartuta ere

ibili da azkenaldian. Maria Jesus Alegria ere, berdintsu. "Buru aktiboan eskaintzen diren saioak asko gustatzen zaizkit. Memoria hobetzen lagundu didatela igarri dut", azaldu du. Eta biek halantxik jarraituko dute aurrerantzean ere. Izan ere, Nagusi Aretoko ekainera bitarteko eskaintza aurkeztu du. 60 urtetik gorako herritarrentzako zerbitzuak izango dira guztiak, osasun, kultura eta teknologia berriei

loturikoak. Ainhoa Salterain Gizarte Ekintzako zinegotziak adierazi duenez, Aretoko "topaketarako gune bat" eskaintzen die Zornotzako adinduei, "euren beharrezan asebetetzeko".

Eskaintza berria 60 urtetik gorako herritarrek erantzundako inkesta batez sortu dute. Eguntan, Zornotzako etxeetan banatu dute programa, 60 urtetik gorako biztanleak bizi diren etxeetan.



Nagusi Aretoko erabiltzaileak eta Ainhoa Salterain Gizarte Ekintzako zinegotzia.

## Aldundiak 3,2 milioi euro inbertituko ditu Zaldibarren N-634 errepidea hobetzeko

Errepideko zati hori korapilatsua izan da urte askoan; lanek hamazortzi hilabete irautea aurreikusten du udalak

### ZALDIBAR • A.M.

Aldundiak 3,2 milioi euroko ekarpena egingo dio Zaldibarren N-634 errepidea hobetzeko proiektuari. Jose Luis Maiztegi alkatearen esanetan, inbertsioa udalak egindako lanaren emaitza da. "Zaldibar bere inguruko beste herrien mailan egotea gura dugu, azpiegiturretan, oinezkoen segurtasunean eta irisgarritasunean egindako inbertsioei dago kienez", esan du alkateak. Lau obra nagusi egingo dituzte N-634

errepidea Zaldibartik igarotzen den zatia hobetzeko: Euskalerra eta Arantzamendi kaleetako irteeretan semaforo inteligentek ipiniko dituzte, Abeletxe kalearen irteera eta Gortazar kalearen sarrera batzen dituen gunean semaforo berri bat ipini eta zebra bide bat egingo dute, Muelles Zaldua alboan biribilgunea egingo dute, eta San Andres etorbidean errepidea mendebalderantz mugituko dute. Lanek 18 hilabete iraungo dute.



Lanek San Andres auzoan izango dute eraginik handiena.

## Abadiño Lagunkoiak irteera bi antolatu ditu adinekoentzat

Otsailaren 22an eta 23an izango dira irteerak; Zapatila proiektuagaz batera antolatu dituzte eta Mobik koordinatuko ditu

### ABADIÑO • A.M.

Abadiño Lagunkoiak lanean jarraitzen du adinekoen artean mendi ibilaldiak sustatzeko helburuagaz. Horretarako, irteera bi antolatu dituzte, otsailaren 22rako eta 23rako; Abadiñon seinaleztatuta dauden "ibilbide osasungarriariko" bi egingo dituzte. "Sedentarisinoa alde batera utzi eta euren erritmoan paseatu gura duten adinekoentzat dira ibilaldiak batez ere. Ibilbideak leunak, laburrak eta errazak dira, eta partaideek eskura izango dituzte atsedeen-bankuak, iturriak eta bai-

nugelak", azaldu dute Abadiño Lagunkoiak egitasmokoek ohar baten bitartez; Zapatila eta Mobi proiektuek lagunduko diete antolaketa.

Otsailaren 22ko irteera Zelaie-tako San Trokaz elkartearen egoitzatik irtengo da, 10:00etan; ordu berean irtengo da 23ko ibilaldia ere, Matienako San Prudentzio elkartearen egoitzatik. Edozein duda izanez gero, elkarte bi horien egoitzetara joateko deia egin dute, izan ere, "martxa bakoitzak behar dituen baldintza eta beharrezakotara egokituko dira".



Aurreko ibilaldi bateko argazkia.

**Gustoko**

Kalitatea eta jatorria

22/3/4-6

Zaporeak, sentsazioak eta produktu berriak.  
Zatoz BEC-era!

[www.gustoko.eu](http://www.gustoko.eu)

Kolaboratzaile nagusiak:

- Bilbao
- Bizkaia
- Basque Culinary Center
- haz

Antolatzailea:

**BEC!** BILBAO EXHIBITION CENTRE

EXPOSSIBLE!

# Surrandiak prestatzeko bigarren tailerra, inauteriak arrakastatsuak izan daitezzen

Maskarak egiteko 150 kit baino gehiago banatuta, zapatuan margotze tailerra egingo dute



Ume eta guraso ugari bat egin du Kriskitin dantza taldearen deiagaz. Irudian, joan zen zapatuko tailerraren une bat.

**DURANGO** • I.G. / E.H.

Kriskitin dantza taldeko kideak pozarren daude Surrandiak prestatzeko tailerrekin. Joan zen asteburuan, maskarak sortzeko tailerra egin zuten eta "sorpresa handia" hartu zuten jendearen harreragaz. Jaione Fernández de Retanak dioenez, jende asko batu zen tailerrera. "Ez genekien zenbat lagun etorriko zen, zenbat ume, gutxi izango ote ziren beldur ginen. Baina, hara. Landako Gunea 17:00etan zabaldu genuen eta ordurako ilara zegoen. Maskarak egiteko 150 bat kit prestatu genituen. Berehala agortu ziren. Botikara joan behar izan genuen igeltsu gehiagoren bila. Eta han ere agortu zen", dio. Zapatu honetan, tailerraren bigarren parte egingo dute. Landako Gunean egongo dira, 17:00etan, maskarak margotzen.

## Politikan

Garazi Errasti  
Silloniz  
EH Bildu



## Etorrizuneko Durango

Durangoko Udaleko gobernu talde modura 2019ko ekainean sartu ginen EH Bilduko zinegotziok, lehenengo hilabeteak udala nola zegoen eta egin beharrekoak zeintzuk izango ziren ikertzen aritu ginen, eta 2020ko otsailean 135 neurri barne biltzen dituen gure Gobernu Plana aurkeztu genuen.

Pasa ditugun bi urte hauek ez dira errazak izan. Denok dakigun pandemia bat jasaten ari gara eta ondorioz, antolatua genuen dena hankaz gora jarri, eta aurrekusi gabe genituen hainbat neurri hartzerara behartuta egon ginen. Berraktibazio Plana martxan jarri eta momentuan sortu zitzaizkigun beharrei erantzuna emateko neurriak hartu behar izan genituen.

Baina gaur, 2022ko otsailaren 18an, Gobernu Planaren neurrien %82 beteta edota martxan daudela esan genezake.

Skate Park berria, Taxi Lagun zerbitzua, Haur eta nerabeen udal kontseilua sortu; beraien beharrik zeintzuk diren eza-gutu eta erantzuna emateko, Indarkeria Matxistak eraildako emakumeak omentzeko gunea, Durangoko historian lehen aldiz aurrekontu parte-hartzaileak martxan jarri, Merkatu plaza berritzeko proiektua abiarazi hau dinamizatzeke ekintza ezberdinak eginez, Ezkurdiko Frontoia konpondu eta eraberritu...

Asko dira urte hauetan gure herrian egindako ekintzak, Gobernu Planean zehazten diren neurriez gain beste hainbeste egin ditugularik. EH Bildutik Etorrizuneko Durangorentzako oinarriak jartzen gabiltza, herri parte-hartzaile, jasangarri, solidario, euskaldun, feminista eta arduratsu bat sortzeko asmoz.

## Durungaldea asteen

### Udaletxeko arkupean dagoen Itxaropenaren Amaren irudia berritzen dabilta Durangon

**Durango** | Durangoko Udala Itxaropenaren Amaren eskultura berritzen hasi da. Eskultura erlijiosoa udaletxearen azpiko arkupean dago. Irudiaren markoa sitsak janda egon da eta eskulturaren eskumako besoa apurtuta dago. Konponketa lanek aste bi iraungo dute. Eskultura 1624koa da eta azken berritze-lanak 1994an egin zituzten.



### Asteburuan 'Naiz Market'-a egingo dute Durangoko Andra Mariko elizpean

**Durungaldea** | Otsailaren 18an, 19an eta 20an 'Naiz market' merkatua egingo dute Durangon, Andra Mariko elizpean. Bertan, hainbat sortzaile lanak egingo dira eskuragai. Azoka musikaz girotuta egingo da.

Azoka honek komertzio txikia laguntzea eta bultzatzea du helburu nagusi.



### Athleticen eta Realaren arteko Bertso Derbia egingo dute Zornotzan, otsailaren 20an

**Zornotza** | Athleticek eta Realak elkarren kontrako derbia jokatuko dute otsailaren 20an, eta, egun hori aprobetxatuta, bertsolariak Bertso Derbia egingo dute Zornotzan, Zornotza Aretoan. Saioa 12:30ean izango da. Hiru bertsolari Athletic ordezkatzuko dute, eta beste hiruk Realak. Talde zurigorria honako hauek defendatuko dute: Anjel Mari Peñagarikanok, Jone Uriak eta Aitor Etxebarriazarragak. Txuriurdinen taldean, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus egingo dira.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

## SENDABELARREN BERBALDIA

OTSAILAK 22

18:30ETAN



GARBIÑE LARREA



Iurreta  
Elezateko Udala  
HERRI BIBLIOTEKA

SARRERA GONBIDAPENAREKIN IZANGO DA  
946 81 27 26  
biblioteka@iurreta.eus  
WHATSAPPEZ: 688 86 37 36



clínica dental hortz klinika  
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan. Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com


# BURUARI KLIK!



# MARGOTU

---

Amaitu marrazkia koloretako sekuentziari jarraituta.



# HANDITIK TXIKIRA

---

Ordenatu handitik txikira beheko arkatzak.



# DIFERENTZIAK

Topatu 7 diferentziak.



# ITZALAK

Zein itzal dagokio laino bakoitzari?







## 'La isla'

ANTZERKIA ABADIÑO :: Otsailak 19

### Emakume biren borroka oholtza gainean, minari aurre egiteko

Ada eta Laura dira Histrion antzerki konpainiaren *La isla* laneako protagonistak, bi emakume "hauskor bezain indartsu". Biek minari aurre egin behar diote, "euren bizitzetaz jabetu den eta ihes egiteko inolako aukerarik ez dutela konbentzitu dituen min sakon horri", obraren egi-leek azaldu dutenez.

Obra honek 2019ko Pala de Río Azokako (Kordoba, Espainia) epaimahaiaren saria jaso zuen, eta zapatuan Abadiño Errota kultur etxean taularatu dute, 19:00etan. Histrion antzerki konpainia Granadan (Espainia) sortu zen, 1994an. Harrezkero, 22 ikuskizun sortu dituzte.

### Otsailaren 18an

**BERRIZ antzerkia**  
'Leihoak' (Teatro Paraíso), 17:00etan, Kultur Etxean.

**IURRETA antzerkia**  
'Me Too' (Tessa Andonegi eta Ainhoa Aierbe), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

**ZORNOTZA antzerkia**  
'Tarara' (Hika Teatro), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

### Otsailaren 19an

**BERRIZ ipuinak**  
'Animalien ipuinak' (Lupe Lekuona), 12:15ean, Kultur Etxean.

**BERRIZ musika**  
Mr Kilombo, 19:00etan, Kultur Etxean.

**BERRIZ musika**  
Cobra, 19:07, Topa tabernan.

**DURANGO dantza**  
'Arima' (Amaia Elizaran), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

**IURRETA tailerra**  
'Emozioak ilustratzen' (Leire Martínez), 09:30etik 13:30era, Herri Bibliotekan. Izena emateko, 94 681 27 26 telefono zenbakira deitu, [bibliotekakoekintzak@iurreta.eus](mailto:bibliotekakoekintzak@iurreta.eus) helbidera idatzi, edo whatsapp bidali 688 86 37 36 telefono zenbakira.

**ZORNOTZA musika**  
'Euskal Herritik bidaia' (Zornotzako Musika Banda), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

### Otsailaren 20an

**ABADIÑO txitxiburduntzia**  
Txitxiburduntzia, 12:00etatik 14:00etara, Zelaietako eskolan. Guraso elkarteak antolatuta.

**ATXONDO txitxiburduntzia**  
Txitxiburduntzia, 13:00etan, Topen. Irteera 10:30ean, Apatako plazatik. Sua eta ogia Guraso Elkarteak ipiniko du.

**DURANGO txitxiburduntzia**  
Txitxiburduntzia, 11:00etan, Madalenako plazan. Txorizoa, ogia eta sua Auzo Alai elkarteak ipiniko ditu.

**ELORRIO antzerkia**  
'Ondina Glups' (Caleidoscopio Teatro), 17:00etan, Arriola antzokian.

**IURRETA Txitxiburduntzia**  
Txitxiburduntzia, 17:00etan, plazan. Aita San Migel Jai Batzordeak antolatuta.

**OTXANDIO bisita gidatua**  
Plazako indusketetara bisita, 11:00etan. Aldez aurretik izena eman behar da: [idezkaritza@otxandio.eus](mailto:idezkaritza@otxandio.eus) helbidera idatzi daiteke edo 945 45 00 20 telefono zenbakira deitu.

**ZORNOTZA bertsoak**  
XVIII. Bertso derbia: Angel Mari Peñagarikano, Andoni Egaña, Jone Uria, Maialen Lujanbio, Aitor Etxebarriazarraga eta Amets Arzallus, 12:30ean, Zornotza Aretoan. Gai jartzailea: Etabar bertso eskola.

**ZORNOTZA antzerkia**  
'Perez sagutxo' (Glu Glu), 18:00etan, Zornotza Aretoan.

### Otsailaren 22an

**IURRETA berbaldia**  
'Sendabelarrak dakiena', 18:30ean, Herri Bibliotekan. Hizlaria: Garbiñe Larrea.

**IURRETA berbaldia**  
'Mozorrotxea ez da disfrazatzea', 19:00etan, Goiuria kulturgunean. Hizlaria: Oier Araolaza. Aita San Migel Jai Batzordeak antolatuta.

### Otsailaren 24an

**BERRIZ zirkua**  
'Nire sudur puntan' (Konika Kolektiboa), 18:00etan, Kultur Etxean.

### Otsailaren 25ean

**IURRETA ahozko narrazioa**  
'Encrucijadas' (Estrella Escriña), 19:00etan, Herri Bibliotekan.

**ELORRIO antzerkia**  
'Kopaz kopa' (Ados Teatro), 20:00etan, Arriola antzokian.

## Zinema

:: **Berriz**  
KULTUR ETXEA

• **El Caso Villa Caprice**  
barikua 18: 19:30  
domeka 20: 19:00

• **Suk Suk**  
eguztina 23: 18:30

:: **Durango**  
ZUGAZA

• **Muerte en el Nilo**  
barikua 18: 19:15/22:00  
zapateria 19: 17:45/20:30  
domeka 20: 17:00/19:30  
astelehena 21: 18:00/20:15  
martitena 22: 18:00/20:15  
eguztina 23: 19:00

• **Cásate conmigo**  
barikua 18: 19:30/22:00  
zapateria 19: 17:00/19:30/22:00  
domeka 20: 17:45/20:00  
astelehena 21: 18:00/20:15  
martitena 22: 18:00/20:15  
eguztina 23: 19:00

• **Coda: los sonidos del silencio**  
barikua 18: 19:30/22:00  
zapateria 19: 19:30/22:00  
domeka 20: 20:00  
astelehena 21: 18:00/20:15  
martitena 22: 18:00/20:15

• **Uncharted**  
zapateria 19: 17:00  
domeka 20: 17:45

• **La Traviata**  
(Erromako operako antzerkia)  
eguztina 23: 19:00

:: **Elorrio**  
ARRIOLA

• **En un muelle de Normandía**  
zapateria 19: 20:00  
domeka 20: 20:00  
astelehena 21: 20:00

:: **Zornotza**  
ARETOA

• **No somos nada**  
domeka 20: 20:00  
astelehena 21: 20:15

• **Las cosas que decimos las cosas que hacemos**  
martitena 22: 20:15

• **Buscando a la mágica Doremi**  
domeka 27: 17:00

# “Geldirik egotea ez da aukera bat; denbora aprobetxatuz abesti berriak sortu ditugu”

Blackhearth taldeak bere bigarren lan luzea kaleratu du oraintsu; gogotsu daude zuzenean aurkezteko, pandemiak oztopatu arren



**MUSIKA** • ARITZ MALDONADO

Asier Larreak eta Alex Hernandezek 2010ean ipini zuten martxan Blackhearth proiektua; bateria jotzen du lehenengoak, eta gitarra bigarrenak. Eurekin batera, Endika Ortegak (gitarra), Jorge Sanchezek (baxua) eta Alain Concepcione (ahotsa) osatzen dute taldea gaur egun. 2019an 'Blackhearth' izeneko diskoa kaleratu zuten, baina zuzenean aurkezten hasteko zirela, planak aldatu behar izan zituzten osasun krisialdiaren ondorioz. Lan egiteari utzi barik, disko berrirako abestiak egiteari ekin zioten. 2021eko abenduan, 'The wrath of God' bigarren lana kaleratu zuten. Chromaticity Studiosen graba-

tu zuten, Vhaldemar taldeko Pedro J. Monge ezagunagaz. Disko berria munduan zehar banatuko dute, Metal On Metal banatzaileagaz kontratua sinatu ostean. Tim Ripper Owens Judas Priest eta Iced Earth taldeetako abeslari ohiak ere kolaboratu du lan honetan. Pozik daude diskoa edukitzen ari den harreragaz, batez ere Europako zaleen artean ere zeresana ematen dabilelako.

**Zelako harrera izan du 'The wrath of God' disko berriak?**

**A. H.:** Diskoa kaleratu aurretik ez genekien zer aterako zitzaigun. Uste dut jendeak oso era berezian jaso duela. Zaleek ere

horrelako zerbait ikusteko gogoz zirela nabaritu dugu. Gu geu oso pozik gaude eta uste dut disko hau oso positiboa izan dela guretzat.

**Hainbat herrialdetako jendearen zorion mezuak jasotzen ditugu egunero. Askok zoriondu gaituzte lan honengaitik.**

**A. L.:** Berba ugari jaso dugu hile hauetan, bai Euskal Herrian bai estatuan, baina nabarmena izan da, batez ere, European izan duen

harrera. Hainbat herrialdetako jendearen zorion mezuak jasotzen ditugu egunero. Askok zoriondu gaituzte lan honengaitik. Horrek, jakina, eragin zuzena izan du CDaren salmentan. **Pandemiak eten egin zuen 'Blackhearth' lehenengo diskoaren aurkezpen bira izan behar zuena. Zelan eragin du horrek taldearen jardunean?**

**A. H.:** Bai, horrela izan zen. 2020rako genituen planak bertan behera geratu ziren egun batetik bestera. Ilusio handiagaz ekin genion urteari, ahalik eta kontzerturik gehien antolatzeke asmoa genuen, baina pandemiak pikutara bidali zituen gure

planak. Geldirik egotea ez zen aukera bat, eta, beraz, denbora aprobetxatuz disko berrirako abestiak lantzen hasi ginen. Bien bitartean, Black Sabbathi gorazarre lan batean parte hartu genuen, mundu osoko hainbat taldegaz batera.

**Bigarren lan hau zuzenagoa dela ematen du, indartsuagoa. Zelakoa izan da Pedro J. Mongeaz lan egitea?**

**A. H.:** Oso ona. Badakigu bere lana ezin hobeto egiten duela, eta arlo pertsonalean konplizitatea daukagu. Batura horrek lasaitasuna ematen digu.

**“Lokalean broma modura hasi zena errealitate bihurtu zen, eta amets bat bete dugu”**

**Besteak beste, Judas Priest taldeko abeslari izandako Tim Owens abestu du zuen diskoan. Nolatan? Zelako esperientzia izan da?**

**A. H.:** Betidanik gustatu izan zaizkigu Judas Priest eta Iced Earth, eta hortik dator dena. Abestia eta diskoa hobetzea da helburua, eta kantak ahots bi behar baditu, ahots bi sartzen dizkiogu.

**A. L.:** Lokalean broma modura hasi zena errealitate bihurtu zen, eta, aldi berean, gure amets bat errealitate bihurtu da.

**Urtarrilaren 15ean Bilboko Kafe Antzokian aurkeztu behar zenuten diskoa. Bertan behera geratu zaituzten kontzertu bakarra da? Aurrera begira, zein asmo dituzue?**

**A. L.:** Oraingoz bertan behera geratu den kontzertu bakarra izan da, eta espero azkena izatea. Aurten ahalik eta kontzerturik gehien jotzea da gure asmoa, disko berria zein aurrekoa zuzenean aurkeztu ahal izateko. Nahiz eta oraingoz data konkreturik eduki ez, lanean gabilta ahalik eta lekurik gehienetan jo ahal izateko. Laster izango ditugu albisteak.

Durangaldean gremioekin,  
zerikusia duen negoziarik baduzu,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian

## 'Me too'-ren aldarri feministagaz ekingo diote Antzerkia Bultzatuz zikloari

Emanaldia Ibarretxe kultur etxean izango da, 19:00etan; zikloko 8. edizioa hasiko da gaur



Tessa Andonegi eta Ainhoa Aierbe.

### ANTZERKIGINTZA • ARITZ MALDONADO

Iurretako Antzerkia Bultzatuz zikloko zortzigarren edizioa asteon hasiko da, *Me too* antzezlanagaz. Tessa Andonegi eta Ainhoa Aierbe dira Ttipia konpainiaren obra honetako protagonistak. Feminismoa "berpizten" dabilen "anabasa informatiboaren" garaian, "ordena" apur bat ezartzeko asmoa dute Andonegik eta Aierbek. "Feminismoa hazten dabil, eta horregaz batera informazio kaosa eta hainbat berba eta kontzeptu berri; egokitu zaigun sasoi kitzikagarri honi buruz hausnartzeko gonbidapena

da lan hau", esan dute. Emanaldia Ibarretxe kultur etxean izango da, 19:00etan.

### Abadiñoko Banarte antzerki taldearen '¡Ese no!' martxoaren 12an izango da

Hilabeteen emanaldi bi egingo dituzte Ibarretxe kultur etxean, bata helduentzat eta bestea umeentzat. Antzerkia Bultzatuz zikloko emanaldi guztietako sarrerak doakoak dira, baina aurretik izena eman beharko da, kultur etxean.

### Bederatzi obrako zikloa

Zortzigarren edizio honetan ere, antolatzaileek Anderebide elkartearen laguntza eduki dute. Emakumeen presentzia ez ezik, euskarazko ekoizpenak ere bultzatzea izan dute helburu. Helduentzat *Good sex Maritxu*, *Rebellion en la granja*, *Conservando la memoria* eta Abadiñoko Banarte antzerki taldearen *¡Ese no!* antzezlanaren programatu dituzte. Umeentzat *Piztu! emakumeon energia*, *Ehiztari ehizatua*, *Hondartzan perretxikotan* eta *Plast & Co* egongo dira.

## Amaia Elizaranek 'Arima' aurkeztuko du San Agustinen

Durangoko emanaldia zapatuan izango da, San Agustín kulturgunean; Tolosako artistak Liam Ó Maonlaí irlandarraren laguntza eduki du sorkuntza berri honetan

### DANTZA • A.M.

Amaia Elizaran dantzari tolosarra *Arima* pieza berriaren aurkezpen biran murgilduta dago. Ia ordubeteko ikuskizunak dantza garaikidea eta folk musika irlandarra uztartzen ditu; Hothouse Flowers taldeko liderra den Liam Ó Maonlaí musikari irlandarrak lagundu dio fase horretan. Dantzari gipuzkoarraren seigarren lana da *Arima*, eta bere ibilbide artistiko eta profesionalean aurrerapauso lez definitzen du

obra. "Bidaia emozional argi bat egiten dugu piezan, betierekoa edo eternala dena bereziki aztertuz", azaldu du Elizaranek. Nazioarteko hainbat artistagaz lan egin eta gero, 2015ean ibilbide propioari ekin zion.

Elizaranek maiatzaren 5ean estreinatu zuen ikuskizuna, Donostiako Gazteszenan; emanaldi horretarako sarrera guztiak saldu zituzten. Maiatzaren 14an, Berrizko Kultur Etxean eskainiko du emanaldia.



Amaia Elizaran. @ETANOWSKI

## Gai librean

### Gero arte!

Hamar urte pasa dira Anboton lehenengo zutabea idatzi nuenetik. Batxilerreko ikaslea nintzen artean, eta eskaintza egin zidatenean ez nuen zalantzarik izan. Gura nuen eskualdeko proiektu komunikatiboaren parte izatea. Harrezkerro buruko minak, poz txikiak eta paper zuriaren aurreko bertigoak bizi izan ditut. Baina, batez ere, gura nuena esateko lekutxo bat izan dudala sentitu dut.

Ezer ez ei da betiko, baina. Zikloak itxi egiten dira, gero igual berriro zabalteko; edo ez. Batzuetan kaxa zarratu eta giltza itsasora bota behar da. Besteetan, hobe da giltza jakinaren gaineko lekuan gordetzea, atzera ere zabaltzeko. Anbotok, baina, denontzako ditu ateak zabalik; eta giltzak, giltzak nonahi daude itxitako kaxak berriz irekitzeko.

Hiruzpalau bider aldatu dugu erretratua, pertsonak berezko duten eboluzioaren seinale. Hasierako "ikasle"



Ainhoa Urien Telleche  
Idazlea

### Izan zutabe bat, izan poema bat. Zu ere ni beste, edo gehiago, aldatuko zinen honezkeron

hark definitu ninduen urte batzuetan, unibertitate garaiarekiko leial. Gero, ostera, ez nuen identifikazio lar sentitzen jada deitura horrekiko, eta praktikak ez ezik barneko bulkadak definitzen ninduen jarri nuen azpian: "idazlea". Idazlea delako idazten duena, etengabe idazteko guran dabilena, pentsatzen, sentitzen, zirriborratzen. Izan zutabe bat, izan poema bat. Zu ere ni beste, edo gehiago, aldatuko zinen honezkeron. Idazleak irakurlea behar du bizitzeko, behar du haren onospena eta kritika, laudorioa eta hobetze biderako proposamena. Horietako batzuk jaso izan ditut noizbehinka zure aldetik. Horretxegatik

nago eskertuta, irakurle. Zeresan handiagoko edo, besterik barik, azaletik idatzitako artikuluei lekua egin diezuelako esker ona; barikuro astekaria jaso eta zabaltzen duzuenoi, begirunea. Zutabea elkarbanatu dugun sortzaileen lanari, errespetua. Idazlea ezin baita izan bere bakardadean, behar ditu beti konplizeak, sortzaile gehiago, elkarrengandik ikasteko, elkar elikatzeko.

Horregatik, Anboto osatzen dugun guztioi besoa altxatu eta agurtxo bat. Ez betierekoa, han ez bada hemen topatuko baikara. Gero arte, besterik ez; Plateruen zahar-berrian, perretxikotan Mendiolako basuen, Gerediagako bertso saioan, Garaiko plazan, Elorrioko kalia, Mañarian gora, Abadiñon San Blasetan, Berrizko autopistapean edo Zaldibarko aldarrian. Eta nola ez, Otxandion Santa Maña egunian. Edo, zergatik ez, Anbotopean koplaka. Han-hor-hemen topatu arte, sano bizi!

# Abadiñoako Saskibaloia Taldeak emakumeen talde bat sortu du aurten

Senior mailako saskibaloia hazten dabil Abadiñon

**SASKIBALOA** • J.D.

Saskibaloirako tradizio handirik bako herria izan da Abadiño, baina joera hori aldatuz doa. 2018an saskibaloia klub bat sortu zuten, herriko historian lehenengoz, gizonen talde batez. Orain, emakumeen talde bat ere badabil entrenatzen, eta hurrengo denboralditik aurrera Bizkaiko ligan aritu gura du.

Emakumeen taldea sortzeko asmoa ez da berri-berria. Deialdi bat baino gehiago egin izan da, baina arrakastarik barik. Horregaitik, gaur egun taldeko entrenatzailea den Ander Díaz Moreno barakaldarra (Muntsaraten bizi da) jen-

**Emakumeetan ez dago jokalaririk abadiñarrik. Durangokoak, Zornotzakoak eta Eibarkoak dira**

deagaz aurrez aurre geratzen hasi zen orain hile batzuk. "Buru-belarri hasi nintzen horretan. Pertsona bakoitzarengana hurreratzen ahalegindu nintzen eta, modu horretara, nahiko prozesu arina izan zen", gogoratu du. Zazpi bat jokalariko taldetxo bat batu zuen, eta gerora kopuruak gora egin du apurka, hementzira heldu arte.

Bitxia den arren, jokalaririk bakar bat ere ez da abadiñarra. Gehienak Durangokoak dira. Zornotzako eta Eibarko jokalaririk baina ere badaude. Horren arrazoia da jokalaririk batzuk

euren taldekide ohien artean ibili zirela mezua zabaltzen, eta tartean ez zegoen euren adineko abadiñarrik, Abadiñon ez delako inoiz seniorren talderik egon.

Jokalaririk gehienak 16tik 18 urtera artekoak dira eta batzuek saskibaloira bueltatzeko arrazoiak aurkitu dituzte Abadiñon, urte bi inguru jokatu barik egon eta gero. "Betiko lagunak berriro elkartu dira. Bost-sei jokalaririk kuadrilla berekoak dira. Umetan, denak batera aritzen ziren eskolan, baina gero, klub desberdinetara joan eta banatu egin ziren. Orain, talde berean batu dira berriro", dio Ander Diazek.

Oraingoz, ez dabilta lehiaketa ofizial batean. Astean birritan, Traña-Matienako kiroldegian entrenatzen dira. Gehienak aurretik saskibaloian aritutakoak direnez, ezagutzen dituzte oinarriak. "Orain taldea egiten gabiltza eta bata bestearengandik ikasten dabilta. Gogotsu dabilta eta hori

**Talde bien ezizena 'Matienako Bulls' da, NBAko frankiziari erreferentzia eginez**

poztarra da", azaldu du Diazek. Uztaitlean, Bizkaiko ligan izena emateko asmoa dute eta dena ondo badoa hurrengo denboralditik aurrera Bizkaiko ligan estreinatuko dira.



Emakumeen taldea, joan zen barikuko entrenamenduaren aurretik.



Gizonen taldearen familia argazkia.

**Gizonen taldea**

Gizonen taldeak esperientzia zabalagoa du. Lau bat urte daramatzate elkarrekin, eta urtebetetik gora daramate Bizkaiko ligan jokatzeko. Talde honetan, badabilta Abadiñoak diren jokalaririk batzuk.

Bizkaiko ligako lehenengo multzoan hiru garaipen eskuratu dituzte orain arte, baina, emaitzen gainetik, partiduetan sortzen den giroa azpimarratu du taldeko jokalaria ere baden Diazek: "Harmailtan beti batzen da jendea, eta

gogotsu animatzen dute. Polita da ikusteko". Zaleen animo oihuen artean, 'Matienako Bulls' entzuten da. Izan ere, horixe da talde bien ezizena edo izen ez-ofiziala, NBA liga estatubatuarreko frankiziari erreferentzia eginez.



**IRAIDE JIMENEZ GREÑO**

**DURANGO | 2004**

**Emakumeena talde gazte-gaztea da. Jokalaririk asko adin txikikoak dira oraindik. Iraide Jimenez da eurretarikoa. Aurten beteko ditu 18 urte.**

**Durangoko San Antonio ikastetxean hasi zen saskibaloian jokatzeko. Ondoren, urte bi Tabirakon eman zituen, eta beste bi Berrizen. Handik etorri da Abadiñora, eta gustura dabil taldekide berriekin.**

**Zergaitik joan zara sortu berri den klub batera?**

Arrazoi birengaitik. Erronka baten bila nabilen eta Abadiñoa aukera ona iruditzen zitzaidan. Talde bat zerotik eraikitzea proiektu polita dela uste dut. Horregaz batera, hemen lagunak ditut ia denak. Aurretik ezagutzen nituen eta hori ere faktore garrantzitsua izan da.

**Bila zenbiltzan hori aurkitu duzu?** Oraingoz oso pozik nabil. Jokalaririk gehienak giro ona dago eta elkar ondo ulertzen dugula ikusten dut. Gainera, jokalaririk

gehienak ez dira berriak mundu honetan; esperientzia dugu aurretik. Maila badagoela ikusten dut. Ikusiko dugu zer gertatzen den, baina ilusioagaz gabiltza.

**"Erronka berri baten bila nabilen eta Abadiñoa aukera ona iruditu zitzaidan"**

**Oraingoz, entrenatzen baino ez zabilta. Hurrengo denboraldian Bizkaiko ligan izena emateko asmoa duzue?**

Bai, horixe da asmoa. Ligan jokatzeko proposatu digute klubean, eta baietz esan dugu. Aurretik esperientzia izateak laguntzen du pauso hori ematen, eta anima-

tuta gaude. Orain gogor gabiltza lanean, prest egoteko. Entrenamenduak serio hartzen ditugu.

**Jokalaririk gehienak 18 urtetik beherakoak zarete oraindik. Hori handicap bat izango da?**

Alde batetik bai, eta beste batetik ez. Gu baino esperientzia handiagoa duten jokalaririk kontra jokatu dugu eta oraingoz ezin dugu hori berdindu, baina taldean ilusioa ikusten dut, ondo egiteko eta zenbat balio dugun ikusteko gogoia, eta hori alde izango dugu.

**Zelan moldatzen zarete Ander Díaz entrenatzailearekin?**

Asko laguntzen digu. Jatorria da eta taldean giro ona sortzen laguntzen du. Entrenamenduak ondo prestatzen ditu eta asko ikasten gabiltza. Oso gustura gaude beragaz.

**Kuriosoa da Abadiñoako klub batean jokalaririk abadiñarrik ez izatea. Etorrizuneko erronka bat da herriko jokalaririk batzea?**

Bai. Gustatuko litzaiguke taldera Abadiñoako jokalaririk batzea. Ni neure kontura ahalegintzen nabil hori lortzeko asmoz. Aba-

**"Abadiñoako lagun batzuei taldera batzea proposatu diet. Pentsatuko dutela esan didate"**

diñoako lagunak ditut eta taldera batzea proposatu diet. Pentsatuko dutela esan didate. Ikusiko dugu zer erabakitzen duten. Batuko balira, albiste ona litzateke eta gu pozik egongo ginatke.

# Durango Rugby Taldeko neskek Euskal Ligako txapelkun geratu dira

Ligako bigarren sailkatua menderatuta lortu zuten txapelketa asteburuan, Errioxan



Durango Rugby Taldeko senior mailako emakumeen taldea. DURANGORUGBY.EUS

## ERRUGBIA • J.D.

Durango Rugby Taldean badute zer ospatu emakumeen senior mailako Euskal Liga irabazi eta gero. Liga amaitzeko jardunaldi biren faltan eskuratu dute titulua.

Joan zen zapatuan, Domiberia R.C. Rioja taldeari egin zioten bisita, eta aitzakiarik bako garaipena lortu zuten: 0-53. Meritu handiko garaipena da, ligako bigarren sailkatuaren kontra jokatzen zutela kontuan hartuta. Emaiza horri eskerrak, senior mailako taldea Bigarren Mailako Euskal Ligako txapelkun geratu zen.

Durango taldea 15 jokalaribaino ez zituela joan zen Errioxara, baina alde aurretik jakinda zer zegoen jokoan. "Irabazteak automatikoki txapelkun bihurtzen gintuen eta galtzeak aldea murriztea ahalbidetuko zion Riojari. Horregaitik, oso partida serioa planteatu genuen", adierazi du Sabin Goiti taldeko teknikariak. "Denbora bakoitzeko gutxienez entsegu bi egitea ipini genuen helburu modura. Hala ere, taldeak oso ondo erantzun zuen, eta lehenengo lau entseguak aurreneko hogeita minutuetan heldu ziren;

beraz, merezitako eta landutako garaipena izan zen", adierazi du Goitik. Guztira, bederatzi entsegu lortu zituzten: bina Elene Rementeriak, Ane Martinezek eta Ane Diezek eta bana Naroa Azpitartek, Izaro Urienek eta Enara Larrabeitiek.

Liga txapelketa segurtatuta, presiorik barik aurre egingo diete azken jardunaldi biei. Martxoaren 13an Eibar taldea hartuko dute Durangon, Arripausetan, eta martxoaren 27an Gernika-Getxo taldearen kontra jokatuko dute denboraldiko azken partidua.

# Eneko Díez bosgarren izan da Europako jiu-jitsu txapelketan



Eneko Díez Erroman jokatutako txapelketan.

## ARTE MARTZIALAK • J.D.

Martitzenean Europako jiu-jitsu txapelketa lehiatu zuten Erroman (Italia), eta hantxe arituzen Eneko Díez Puebla 23 urteko durangarra.

Lehenengoz lehiatu zen Europako txapelketa batean eta lan aparta egin zuen. Bosgarren postuan amaitu zuen Madrilgo Chekmat taldean dabilen durangarrak. "Pozik nago emaitzagaz, eta horrelako txapelketa gehiagotan parte hartzeko gosez ere banago. Hutsegite batzuk egin ditut eta datorren astean bertan hasiko naiz horiek lantzen", adierazi du Diezek.

Txapelketako lehenengo aurkari biak erraz menderatu zituen. Brasildar baten kontrako lehenengo

## Brasilgo eta Ingalaterrako aurkari bana menderatu zuen Erroman lehiatutako txapelketan

go borrokaldia 5-0 irabazi zuen. Bigarren koska ere aise gainditu zuen: 21-0, ingeles baten kontra. Emaiza horiei eskerrak geratu zen bosgarren.

## Jokaldia

### Mugitu kirolarekin

Kirola egitea gorputza mugitzeko ez ezik burua freskatzeko tresna aproposa da eta, azkenaldian, inguruko komentatzen dizkidaten gauzetatik abiatuta, horri lotuta burutapen dezente izan ditut. Jende askok galdeztzen dit ea zelan lortzen dudan nire gorputzarekin eta nire buruarekin ondo egotea hamaika abenturatan sartuta nabilenean: txirindularitza talde profesional batean sartuta nago, bestelako lan bat dut, umeei begirako ziklismo eskola berriak sortzen dihardut, ama naiz eta horrek ere bere lana eta denbora eskatzen ditu... eta, horrez gainera, kirola egitea gustatzen zait.

Ez da erraza hainbeste kontutan murgilduta egotea, baina ekimenak antolatzen jarraitzeko asmoa dut eta dagoeneko badut beste ekimen bat



Eneritz Iturriaga  
Mazaga  
Txirindularitza

**"Kirolak dituen balioak eta indarguneak sustatzea da hurrengo belaunaldiei utzi gura didan ondarea"**

**"Aitortu behar dut bizipoza ematen didatela azkenaldian bizitzen ari naizen esperientzia hauek guztiek"**

labean, nahiz eta oraingoz ezin dudan horri buruzko pista gehiagorik eman. Baina laster izango duzue horren gaineko informazio gehiago!

Aitortu behar dut bizipoza ematen didatela bizitzen ari naizen esperientzia hauek guztiek. Eta bene-benetan


desio dut, pandemiak ekarri duen guztiarekin, mundu guztiak bizitzeko eta aurrera egiteko gogoia izatea.

Kirolak dituen balioak eta indargune guztiak sustatzea da nik hurrengo belaunaldiei utzi nahi didan ondarea. Aspaldion umeekin bizikletarako zaletasuna sustatzen nabilen heinean, konturatu naiz momentu guzti-guztiak aberasgarriak direla eta denetan atera daitezkeela ikasgaiak. Sarritan ahaztu egiten zaigu unean-unekoarekin gozatzea, iraganeko edo etorkizuneko kontuetan dugulako burua.

Beraz, hasieran azaldu dudana itzulita eta jendeak egiten didan galderari erantzunez, egiten dudan guztia topera bizitzen saiatzen naiz, segundo bakoitza baloratzen eta merezi duen garrantzia ematen. Horixe da lehenengo pausoa, orainaldia baita beti bizi dugun momentua.



# merkataritza gida sarean



[anboto.org/gida](http://anboto.org/gida)



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko  
merkataritza gida BERRIA  
euskaraz eta sarean!***

**Merkatari gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902**  
**Argazkiak - Datuak - Kokapena**  
(urtean 50€)



Eskelak jartzeko: 946 816 558  
edc anboto@anboto.org

**Eskela mota guztiak**

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

**Zorion Agurrak**

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

**GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **intza (881. alea)**!  
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

**Botikak**

<p><b>BARIKUA, 18</b> · 09:00-09:00</p> <p><b>UNAMUNZAGA</b> Muruetatorre 2C - DURANGO</p> <p><b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - ZORNOTZA</p> <p><b>09:00-22:00</b></p> <p><b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO</p> <p><b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA</p> <p><b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - ZORNOTZA</p> <p><b>ZAPATUA, 19</b> · 09:00-09:00</p> <p><b>ETXEBARRIA</b> Montevideo etorb. 2. - DURANGO</p> <p><b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA</p> <p><b>09:00-13:30</b></p> <p><b>GAZTELUMENDI</b> J.A. Abasolo 2 - DURANGO</p> <p><b>UNAMUNZAGA</b> Muruetatorre 2C - DURANGO</p> <p><b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - DURANGO</p> <p><b>DE DIEGO</b> Intxaurrenonda 22. - DURANGO</p> <p><b>CAMPILLO</b> Montevideo etorb. 24 - DURANGO</p> <p><b>BAZAN DIAZ</b> Uribarri 5 - DURANGO</p> <p><b>SARRIA</b> Sasikoa 17, DURANGO</p> <p><b>JAIO-ABENDIBAR</b> Errekakale 6. - ELORRIO</p> <p><b>FARMAZIA MATIENA</b> Trañabarren 15. - ABADIÑO</p> <p><b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - ZORNOTZA</p> <p><b>GUTIERREZ, IBAN</b> Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA</p> <p><b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - ZORNOTZA</p> <p><b>RUIZ, JUAN</b> El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA</p> <p><b>GOIRIA, MARI CARMEN</b> Sabino Arana 6 - ZORNOTZA</p> <p><b>09:00-14:00</b></p> <p><b>IRIGOIEN</b> Bixente Kapanaga 3 - IURRETA</p> <p><b>09:00-22:00</b></p> <p><b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO</p>	<p><b>DOMEKA, 20</b> · 09:00-09:00</p> <p><b>GAZTELUMENDI</b> J.A. Abasolo 2 - DURANGO</p> <p><b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA</p> <p><b>ASTELEHENA, 21</b> · 09:00-09:00</p> <p><b>IRIGOIEN</b> Bixente Kapanaga 3 - IURRETA</p> <p><b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA</p> <p><b>09:00-22:00</b></p> <p><b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO</p> <p><b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - ZORNOTZA</p> <p><b>MARTITZENA, 22</b> · 09:00-09:00</p> <p><b>SARRIA</b> Sasikoa 17, DURANGO</p> <p><b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA</p> <p><b>09:00-22:00</b></p> <p><b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO</p> <p><b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - ZORNOTZA</p> <p><b>EGUAZTENA, 23</b> · 09:00-09:00</p> <p><b>UNAMUNZAGA</b> Muruetatorre 2C - DURANGO</p> <p><b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA</p> <p><b>09:00-22:00</b></p> <p><b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO</p> <p><b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - ZORNOTZA</p> <p><b>EGUENA, 24</b> · 09:00-09:00</p> <p><b>CAMPILLO</b> Montevideo etorb. 24 - DURANGO</p> <p><b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA</p> <p><b>09:00-22:00</b></p> <p><b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO</p> <p><b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - ZORNOTZA</p>
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------



**Eguraldia**

ZAPATUA ↓ 11° / 4° ☁	ASTELEHENA ↓ 13° / 6° ☁	EGUAZTENA ↓ 16° / 5° ☁
DOMEKA ↓ 14° / 4° ☁	MARTITZENA ↓ 14° / 7° ☁	EGUENA ↓ 14° / 5° ☁

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#salduenak

<p>7<sup>#</sup></p> <p>LEIRE VARGAS Dena ametsa den irudipena Leire Vargas (Elkar)</p>	<p>2<sup>#</sup></p> <p>ERAIKUNTZARAKO MATERIALA Eider Rodriguez (Susa)</p>	<p>3<sup>#</sup></p> <p>IZURDEEN AURREKO BIZITZA Kirmen Uribe (Susa)</p>	<p>4<sup>#</sup></p> <p>KARENA Alaine Aguirre (Elkar)</p>	<p>5<sup>#</sup></p> <p>MIÑAN Amets Arzallus &amp; Ibrahim Balde (Susa)</p>
-------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------

## “Aktore izateko ametsa egia bihurtu da eta arte dramatikoa ikastea erabaki dut”

Ainhoa Azpitarte ETB1eko 'Irabazi Arte!' telesailko protagonista baten azalean sartu da, Olatzen azalean. Zortzi atal grabatu zituzten Donostian, uztailean eta abuztuan



**Ainhoa Azpitarte Elgea**

'Irabazi Arte!' telesailko aktorea

ZALDIBAR | 2004

**ZALDIBAR** • AITZIBER BASAURI

ETB1en estreinatu berri duten 'Irabazi Arte' fikziozko telesailko Olatzen azalean sartu da Ainhoa Azpitarte. Futbol talde bat sortu gura duen neska talde bat da protagonista, klubak ipinitako trabak gaindituz aurrera egitea lortuko duena. Azpitartek Elorrio Futbol Klubean jokatzeko eta entrenatzailea da Zaldidak eta Elorriok sorturiko Biak-Bat klubean. Batxillergoa amaitu eta selektibitate prestatu ondoren, datorren urtean arte dramatikoa ikasi gura du, Antzertin (Bilbo).

Zelan sortu zitzaizun 'Irabazi Arte' telesailan parte hartzeko aukera?

Bizkaiko Futbol Federazioaren eskutik izan nuen castingaren berri. Asko emozionatu nintzen. Interpretazioa eta futbola izugarri

**Itziar Ituño aktorea dut gogoko. Lortu daitekeenaren eredia da niretzat**

gustatzen zaizkit eta biak uztartzeko aukera nuen. Bada, aurkezpen bideoa bidali nuen castingarako. Gidoi labur bat bidali zidaten bideoz grabatzeko, eta gero aurrez aurreko castinga egin nuen Donostian.

Zelan joan zen?

Lehenengo castingean, Areneren eta Noraren paperean sartu behar izan nuen. Lasai joan nintzen, esperientzia polit bat zen eta proba egitera nindoan. Bigarrenean, urduriago ipini nintzen. Olatzen azalean, beste pertsonaia bategaz elkarrizketa bat antzeztu behar izan nuen.

**Telebistan lehenengo esperientzia izan duzu. Zelan gogoratzen dituzu grabazioak?**

Nahiko gogorra izan zen, baina oso gustura lan egin nuen. Kanpotik oso erraza ematen duen arren, atzean lan handia dago, ordu asko eta lantalde handia. Zaldibarren

05:30ean hartzen nuen tren, eta 08:00etan hasten nintzen lanean. 23:00etan heltzen nintzen etxera. Baina merezi izan du. Inoiz ahaztuko ez dudana esperientzia izan da, oso aberasgarria. Osasun egoeragaitik, aktoreon artean halako burbuila bat sortu genuen, kuadrilla polit bat, eta hartu-emana dugu oraindino. Mantentzea espero dut. **Gatxa izan da Olatzen azalean sartzea? Identifikatuta sentitu zara?** Pertsonaia guztien artean, uste dut Olatzen azalean sartzea nuela errezen. Olatz nahiko zakarra da, ni neu ere bai batzuetan. Pertsona zuzena ere bada, ahotik irteten zaion guztia txarrerako da eta denentzat du zerbait. Ainhoa ez da horrelakoa. Baina beste gauza batzuetan identifikatuta sentitu naiz. Baditugu antzekotasun batzuk.

**'Irabazi Arte! fikzioa da, baina errealitatearen isla da. Bizi izan ditut neuk ere halako egoerak, maila horretakoak izan ez diren arren**

**Olatz atezaina da. Ainhoak hegalean eta erdilari jokatzeko du. 'Irabazi Arte! fikzioa da, baina errealitatearen isla? Ainhoak bizi izan ditu Olatzek bizitako egoerak?**

Bai, errealitatearen isla. Bizi izan ditut neuk ere halako egoerak, maila horretakoak izan ez diren arren.

**Noiztik duzu antzezteko grina?**

Txikitatik. Baina urteek aurrera egin ahala aktore izateko amets hori albo batean utzi nuen. Orain, amets hori egia bihurtu da eta arte dramatikoa ikastea erabaki dut; orain, antzezpina ez da zaletasun hutsa.

**Zein aktore duzu gogoko?**

Itziar Ituño. Lortu daitekeenaren eredia da niretzat. Euskaldun moduan, halako harrotasuna ematen du non dagoen ikustea, eta etorkizuneko itxaropena ere bai. Berak lortu badu, guk ere lortu dezakegu. **Musikak ere garrantzia du zure bizitzan.**

Bai. Futbola eta kantua deskonektatzeko bideak izan ditut beti. Jarraitzen dut abesten, eta tarteka kontzerturen bat ematen.

**Lau-hortza**

Alina Ahtamon Medikua



**Txertoak**

Mendeetan zehar epidemiak mundu osoko pertsoneri eragin zien, eta gaixotasuna larria zen askotan. 1796an, Edward Jenner mediku ingelesak baztangatik babesteko modu bat aurkitu zuen eta honek baztangaren lehen txertoa garatu zuen. Harrezkero, beste gaixotasun askoren aurkako txertoak garatu dira: hepatitis, difteria, eztula, tuberkulosia, gripea, errubeola eta abar. Gaur egun, koronabi-

**1796an, Edward Jenner mediku ingelesak baztangatik babesteko modu bat aurkitu zuen**

rusak sortutako pandemiaren aurkako hainbat txerto garatu dira eta arrazoiren batengatik txerto hauek batzuei mesfidantza eragiten die. Datu estatistikoetatik haratago, nire praktika klinikoan egunero ikusten dudana harrigarria da eta euren burua txertoaren aurkakotzat duten pertsonen ere ikustea gustatuko litzaidala

**Gaur egun, pandemiaren aurkako hainbat txerto garatu dira eta batzuei mesfidantza eragiten die**

ke: pneumonia larria duten eta ZIUetan egunero ospitaleratzeko ditugun guztietatik, gehienek ez dute txertoa, edo ez dituzte booster dosi guztiak. Ez dakit gaixotasun hau zientzialariek asmatu duten ala ez; ez dago zalantzarik gaur egun txertoak eta haien garapena negozio bat direla, baina horrek ez du esan nahi COVIDaren aurka babes-teari utzi behar diogunik.

**AgroPaper®**  
NEKAZARITZA  
JASANGARRI BATERAKO  
NEGUTEGIA



**Smurfit Kappa**